

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Enplegu publikoko eskaintza 2017**

Alkate jaunak, 2017ko azaroaren 7an, hurrengo 3550/2017 zenbakidun Dekretua egin du, zeinak honela dioen:

*Lehenengoa:* Plantillan gertatutako aldaketak ikusita, eta udal arloetako ordezkari-  
tzek proposatutako langile-premiak aztertuta, Udalaren 2017rako Lan-eskaintza Publi-  
koa onesten da, Erabaki honen eranskinean ezarritakoaren arabera. Hala egiten da,  
Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen urriaren  
30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 70. artikuluan, eta Euskal Funtzio Publi-  
koaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera; bi horiek  
dioten bezalaxe, aurrekontuan diru-kopurua esleitua duten giza baliabideen premiak lan-  
gile berriekin betetzeko enplegu publikorako eskaintza egingo dela.

*Bigarrena:* Lan-eskaintza Publiko hau bat dator 2017ko Estatuko Aurrekontu Oro-  
korra arautzen dituen 3/2017 Legearen 19. artikularekin, langile berrien kopuruak ez  
duelako gairatutako Udaltzaingoan ordeztu beharreko langile-tasaren %100, eta %50 gai-  
nerako arloetan.

*Hirugarrena:* Eranskinean jasotakoak izango dira Lan-eskaintza Publiko honetan  
aurreikusitako plazei dagozkien hizkuntza eskakizunak. Hala izango da Euskal Funtzio  
Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. Tituluan (hizkuntza normalizazioa-  
ri buruzkoa) adierazitakoa betetzeko, eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatu-  
takoarekin bat etorrita (horrek arautzen baitu euskararen erabilera Euskal Autonomia  
Erkidegoko Herri Administrazioetan). Halaxe izango da, bestalde, Lan-eskaintza Publi-  
koari dagokion deialdia plazak betetzera zuzendua dagoen arren, ez lanpostu zuzenak  
betetzera —lanpostuei dagozkien hizkuntza eskakizunak Udalaren indarreko lanpostuen  
zerrendan ezarrita daude, eta bat datoz Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek bere  
garia egindako txostenekin—.

Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna ezarrita daukaten plazetan (dagokion deialdian  
zehaztuko da bakoitzaren hizkuntza eskakizuna), nahitaezkoa izango da hizkuntza es-  
kakizun hori izatea plaza eskuratzeko; hizkuntza eskakizun hori egiaztatu beharko da  
oinarrietan zehaztutako moduan.

Gainerako plazetan, berriz, euskararen ezagutza merezimendu gisa balioetsiko da,  
eta portzentaje bat esleituko zaio. Hautaketa-prozesuan lor daitekeen gehienezko pun-  
tu-kopuru osoa kontuan hartuta, euskararen ezagutzagatiko merezimenduak ezingo du,  
inolaz ere, %5 baino txikiagoa edota %20 baino handiagoa izan, hurrengo eskala honen  
arabera:

- 1. eta 2. hizkuntza eskakizuna: %5 - %10.
- 3. eta 4. hizkuntza eskakizunak: %11 - %20.

Ikusita Giza Baliabideen atalburuak 2017ko urriaren 25ean egindako txostenak, eta  
apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan jasotako eskumenak baliatuta, Alkatetza  
honek zera

**XEDATZEN DU:**

*Lehenengoa:* 2017. urteari dagokion Lan-eskaintza Publiko onestea.

*Bigarrena:* Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzan  
Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Basaurin, 2017ko azaroaren 7an.—Alkatea, Andoni Busquet Elorrieta

**ERANSKINA**  
**LAN-ESKAINTZA PUBLIKOA 2017****SARBIDE LIBREKO SISTEMA**

Taldea (7/07 Legearen artikuluaren arabera)	Sailkapena	Plazaren deskribapena	Plaza kopurua	HE
C2	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezietako Azpieskala. Klasea: Udaltzaingoa.	Udaltzaina	2	2
C1	Adm. Orokorreko Eskala. Administrarien Azpieskala. Klasea: administraria.	Teknikari administraria	1	2
E	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Klasea: hainbat lanbidetako langileak.	Peoi balioniztuna	1	1
E	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Klasea: hainbat lanbidetako langileak.	Eraikin publikoetako mantentze- lanen arduraduna	2	2

**BARNE-SUSTAPEN TXANDA**

Taldea (7/07 Legearen artikuluaren arabera)	Sailkapena	Plazaren deskribapena	Plaza kopurua	HE
C2	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Hainbat lanbidetako langileak.	Arduraduna	1	1
E	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezien Azpieskala. Hainbat lanbidetako langileak.	Elektrikari laguntzailea	1	1

Deialdi bakoitzean zehaztuko dira eskainitako plazak lortzeko prozedura eta baldintzak.